

Irurako emakumeek egindako lana azaleratzeko ibilbidea

Irurako Udalak herriko emakumeen memoria historikoa bilduko duen ibilbidea osatuko du parte hartze prozesu baten bitartez; martxoaren 8rako prest eduki nahi dute //

Uzturre zentroaren kudeaketa 36 urterako esleitu izana salatu dute

Tolosako EH Bilduk adierazi du epea «luzeegia» dela, eta udalak zaintza sistemaren ereduan aldaketak emateari atea itxi diola //

Auzolaneko esperientzia «berritua» aurkeztuko dute Berastegin

Auzolaneko kulturaren gainera lanketa egin nahi da eskualdeko eragileekin, proiektu berriak diseinatu eta esperientzia pilotuak martxan jartzeko //

Sandra baserrira kronoigoera antolatu dute larunbaterako

Amasa-Villabonako Irrintzi Txirrindularitza Elkarteak antolatu du; lau kilometroko luzera izango du, eta hiru kategoriatan hartuko dute parte //



ENERITZMAIZ

«Bion soldata atera ahal izateko lana egin beharra dago»

MARIA TERESA JAUREGI ETA JEXUX ARTOLA NEKAZARIAK

Baserrian jaioak dira biak, eta Anoetako Mendigibel baserrian bizi dira ezkondu zirenetik; baratzea dute ogibide, eta egun Tolosako azokan izaten dira larunbatero; gazte ugari ikusten dituztela bertan nabarmendu dute //

Tolosaldean urdintzeko deia egin du Sare ekimenak

Larunbatean iritsiko da eskualdera 'Ibilian ibilian' dinamika ibiltaria; Alegian elkartuko dira

Erredakzioa

Ibilian ibilian dinamika iritsiko da larunbatean eskualdera. Izan Bidea egitasmoari bultzada eman asmoz antolatu dute, eta Sarek esan du «preso eta iheslarien etxeratzearen alde, eta elkarbizitzaren eta bakearen alde» antolatutako ekimena dela. Ekimen ibiltaria da eta jada izan dira ekitaldiak Debarrena, Deba-



Pasa den asteko aurkezpena. E.M.

goiena, Buruntzaldea eta Goierri eskualdeetan.

Tolosaldean ekimenaren ekitaldi nagusiak larunbatean izan-

go dira, Alegian *Ibilian ibilian* Tolosaldea urdinduz lelopean, baina bihar bertan kontzertua egongo da Anoetan; Onkixin eta Bassagain taldeek eskainiko dute kontzertua 19:00etan.

Larunbatean bertan 12:30ean egingo dute bat parte hartzaileek Alegiako Bulebarrean. Ekimenarekin bat egiteko bi modu daude, ibilbidea bizikletaz egitea edo oinez egitea. Bizikletan egiten dutenak 10:00etan bilduko dira Asteasun eta oinezkoak 11:00etan Tolosan. Sarek herritarrei egin die dei ekimenean parte hartzera «maldan gora edo behera, baina guztiok batera egoera honekin behin betiko amaitzeko».

GUTUNA

Zatoz kalera uztailaren 17an!

Mendeetan zehar jazarri dute patriarkatua gu menperatzeko, errepresio politikoa herria zanpatzeko eta salbuespen legeak presoak deuseztatzeko. Sakabanaketa mendeku politikak, Euskal Herriarekiko atxikimendua moztuz, presoak zigortu eta kontrolatzeaz gain hauek desagerraraztea izan du helburu. Bakartuta eta baldintza ankerretan errazagoa baitzaie subjektu politiko bezala gu ahultzea. Emakume* presoen kasuan sakabanaketa geografikoari sakabanaketa eta zigor patriarkala eransten zaizkiolarik. Gizonek gizonentzat eginiko espetxeetan, ez da nahikoa gure ideiegatik zigortzea, kartzelak helburu erantsia du gu heteropatriarkatu arrazistaren esaneko eta otzan bihurtzea.

Salbuespen legeak arau bihurtuta, presoon eskubideak ukatuz, giza eskubideen instrumentalizazio politikoa eguneroko bihurtuz bide egin du espainiar aparatu errepresiboak munduan zehar. Biolentziaren monopolioaz, torturak sistematikoak izan dira eta torturatzaileen zigorra erabatekoa. Eskubideak boron-

date politikoaren arabera aplikatuz eta interes politikoen menpe euskal preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideak edonon urratzen dira.

Frankoren oinordeko Auzitegi Nazionalak legearen interpretazio ankerrekin eginez, euskal preso politikoez beteta mantentzen ditu espetxeak. Irabazle eta galtzaileen eskeman, heriotza zigorrera kondenatuz larriki gaixoa dauden presoak eta haien senideak errepideetan bisitetan.

Politika hiltzaile horri, zigor patriarkala eransten zaio emakumeon* kasuan. Komisarietan gure emakume gorputzak gudu zela bihurtu eta espetxeetan gorputzak kontrolatuz. Gure aurkako jazarpen politikoak jite sexista du. Atxilotetatik hasi, tortura sexistekin jarraituz eta bera babesten duen justizia patriarkaleraino.

Oraindik lurperatuak eta desagertuak bilatzen ari garenean, hasi gara hasi torturak itzaleatik argitara ateratzen. Memoria historikoan ezabatu nahi duten aldeak kontatzeko osatzen. Ageri dira Espainiako eta Frantziako estatuetako ziega grisetan argi izpiak, ihesetik gertuago sentitzen etxea, deportazioetik/deserriketik ibilian jarraitzen duen herria entzuten... Pozgarriak dira ematen ari diren pausoak, baina oraindik asko dago egiteke.

Sakabanaketaren mapan desagertu da Andaluzia. Puntu ni-miño bat mapan, min eta ondorio latz ikaragarriak euskal bihotzetan. Mapa hori husteko ordea, ez da nahikoa gobernuan nor da-

goenaren borondatea. Eskubide politiko eta zibilak ezin dira tonbola bihurtu. Gaur Andaluzia hustu eta bihar Zürichen norbait espetxeratu edo 13/13 prozesuko epaituak kartzelan bukatu.

Horregatik, bete dituzue mendi, kale, herri, hondartza... *Ibilian ibilian* dinamika, preso, deportatu eta iheslarien etxerako bide orrian. Giza kate, mosaiko eta manifestazio saretu dituzue presoen aldeko dinamika eta batu indarrak. Gizarteak mobilizatu behar du estatu zapaltzaileen inmobilizazioa apurtzeko. Gizarte mobilizatu da eta are gehiago mobilizatu behar da preso, iheslari eta deportatuen etxeratzeak atzerapausorik izan ez dezan.

Ibilian ibilian dinamika etxerako bidea markatzen duen bide orri batean oinarritu nahi ditu bere urratsak. Bide luzea da eta urrats sendoak eman behar dira. Mugimendu hauek esperantza sortu badute ere, aurrera begira urrats eta baldintzak erroto behar ditugu espetxeak hustu eta berriro ez betetzeko. Etxerako bidean baldintzak eta legeak ezin dira Madril eta Parisetik ezarri, baldintzak guk jarri behar ditugu bakeaz eta bizikidetzaz ari bagara.

Iheslariok eta deportatuok mapan azaldu nahi dugu, baina ez sakabanaketaren mapan, askatasunarenean baizik!

Azken ibilbidea askatasuna dugulako, zatoz kalera uztailaren 17an! Dabilen herriari espetxerik ez!

Nekane Txapartegi Asteasu

Remi Ayestarani omenaldia, 12. urteurrenean

Remi Gogoan herri ekimeneko kideek ekitaldia egingo dute uztailaren 31n, 20:00etan, bere omenezko monolitoan

Erredakzioa Amasa-Villabona

Hamabi urte beteko dira uztailaren 31n, Remi Ayestarani billabonatarra hil zela, eta Remi Gogoan ekimeneko kideek urteroko ekitaldia egingo dute 20:00etan, bere monolitoaren ondoan. «2009ko uztailaren 31 hartan udal ordezkari gisa lanean ari zela, bihotza leherrarazi zioten», gogoratu dute. «Ertzaintzaren presio eta probokazioen aurrean, Santio jaiak istilu gabe amaitzea nahi zuen, baina ez zuten bakean utzi».

Ekimeneko kideek salatu dute hamabi urte pasa direla eta inongo azalpenik ez dela eman, are gehiago «inork eragindako galararen ardura beregain hartu

gabe» jarraitzen dutela esan dute. Urteak pasata gertatutakoa salatzen eta gogoratzen jarraituko dutela esan dute eta Remi Ayestarani Etxeondoko zuhaitza puskatu izana ekarri dute gogora: «Itxi gabeko zaurian min eman digu». Ekimeneko kideen iritziz zuhaitza puskatu izanak agerian utzi du memoria lantzen jarraitu beharra, «herriko belau-naldi gazteek ere jakin dezaten Remi nor izan zen. Herri honen alde lan egin zuen gazte bat, ordutegiei erreparatu gabe, herri-gintzan aritu zen Amasa-Villabonako seme bat». «Remiri zor zaion aitortza egiteko» egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa exijitzen jarraitzen dutela esan dute.



Pasa den urteko omenaldiko artxiboko irudia. E.M.

Norberak diagnostikoa egiteko testak, baimentzear

TOLOSALDEA // Datorren astean baimenduko dituzte, eta botiketan egongo dira salgai. Legezkoa izango da publizitatea ere Espainiako Gobernuak Osasun ministroak jakinarazi duenez. Pandemiaren joera txarra ikusita, positiboak izan daitezkeenak eta sintomarik ez dutenak atzematea dute helburu.

41

POSITIBO BERRI

11.651 test diagnostiko egin ziztuzten herenegun, eta horietatik, 989 (%8,5) positiboak izan ziren. Gipuzkoan, 398 atzeman ziztuzten, tartean, 41 Tolosaldean; Tolosan 15, Amasa-Villabonan 9, Zizurkilen 5, Iruran 4, Alkizan eta Asteasun 2 eta Adunan, Al-tzon, Anoetan eta Ikaztegietan positibo bana.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefono zenbakira.

Eguneko arreta enpresa pribatu bati esleitu zaiola salatu du EH Bilduk

Tolosako koalizioak esan du udalak 36 urterako esleitu duela Uzturre zentroaren kudeaketa; udalak zaintza ereduaren aldaketari atea itxi diola gaineratu du

Erredakzioa

Tolosako EH Bilduk esan du Tolosako udal gobernuak «bere ardua alde batera utzi eta enpresa pribatu baten esku» utzi duela Uzturre asistentzia gunearen kudeaketa. «Aurreko astean bertan Tolosako Uzturre Asistentzia Gunea kudeatzeko emakida kontratua aldatzea onartu zuen udal gobernuak, eguneko arreta zerbitzua emakida horri atxikiz, 36 urte gelditzen zaizkion kontratu bati, hain zuzen».

EH Bilduren iritziz 36 urteko epea luzeegia da «udalaren arduraren den zerbitzu publiko baten kudeaketa» enpresa pribatu bati emateko, «noiz eta zaintza sistema eta daukagun zaintza eredu aldatzeko eskaera sozial, sindikal eta politiko ozena dagoenean». Koalizioaren iritziz pandemia egoerak are argiago utzi du indarrean dagoen zaintza sistemak ez dituela gaur egungo gizartearen beharrak asetzen eta esan du aldaketa sakon bat beharrezkoa dela. «Eztabaida zabal bat egon behar du, etorkizunera begira gai honen inguruan daukagun erronka garrantzitsuei aurre egiteko, kalitatezko zaintza



Tolosako Uzturre zentroaren kanpoaldea. ATARIA

eredu publiko eta zaintzaileen lan baldintzak zainduko dituen sistema bat lortzeko».

Nabarmendu du 30 urte barru populazioaren %30 65urteko gorakoa izango dela kontuan hartuta, «epe luzerako beharretan pentsatu behar dugu, ez epe luze kontratu itxietan».

Tolosako EH Bilduk argi du behar berriak sortuko direla eta hori dela eta, uste du eredu berriak lantzeko konpromisoa hartu behar dela «behar horiei erantzuteko, zainduen eta zaintzaileen duintasuna bermatuko

dituena eta zaintza sistema publikoa oinarri izango duena».

Horiek horrela, «EAJ eta PSEk osatutako udal gobernuak hartu duen erabakiak eraldaketarako bidea ixten» duela esan du; «enpresa pribatu batekiko 9 legegintzalditarako konpromisoa hartuta. Datozen 36 urteetan zaintza sistemaren eredu aldaketa sakonak emango diren bitartean, udal honek ia ez du aukerarik izango zerbitzu hau momentuko beharretara egokitzeko eta gutxiago zaintza eredu aurrerapausoak emateko».



ZORUA BERRITZEKO LANAK

Astelehenean hasi zituzten Trianguloa plaza atzeko Zerkau-sira bideko eremuan zorua berritzeko lanak. Udalak esan duenez, bi aste iraungo dute lanek eta zorua erabat berrituko dute, «egoera txarrean zegoen eremua txukunduz, irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko». ATARIA



AZKEN EGONALDIA

Udako egoitzak itxi ditu Topic zentroak, Don Davel Konpainiak egin berri duen sorkuntza egonaldiarekin. «Errepikatze-moduko esperientzia» izan dela kontatu dute. Konpainiak Tolosan sortu duen ikuskizunaren izenburua *Lihedda*, Elze-ar Duquetteren Historia Harrigarria. ATARIA

Keinu Txikien Aliantza, gazte aktibo izateaz

Uztailean gazte aktiboen inguruan izango dira keinu txikiak; haurrak ere ari dira parte hartzen

Erredakzioa

Herritar guztien artean Tolosan solidaritatea, berdintasuna, jasagarritasuna edota tokikotasuna bezalako balioak indartu asmoz, Keinu Txikien Aliantza ekimena ari da burutzen Tolosako Udala. Hilabetero gai desber-

dinak jorratzen dira, eta uztailean, *gazte aktiboak* da gaia.

Udaletik azaldu dutenez, «tolosarrak komunitate bat osatzen dugu eta keinu txiki horien bitartez herritar askoren bizimodua aldatu eta hobetu daiteke, bakoitzaren begi eta begiradetatik abiatuta, herritar gisa ahalduntzeko, komunitate bezala indartzeko eta elkar zaintzeko». Orain arte landu diren gaiak kontzienteki bizitzea, belaunaldikotasuna eta inklusioa, berdintasuna, elikadura eta kontsumo ohiturak, parte-hartzea eta elkarlagintza, eta ingurumena eta klima

izan dira. Hilabete honetan gazte aktiboen gaia aukeratu dute, eta hurrengo hilabeteetan gertuko turismoa, mugikortasuna eta ohitura osasungarriak, kultura, birziklapena eta euskara izango dira ardatz.

NOLA PARTE HARTU

Keinu Txikien Aliantzaren parte hartzeko, hilabete hasieran hilabeteke keinu txikiak zein diren begiratu behar da Tolosako Udalaren webgunean, Tolosatzen Aliantzari buruzko atalean. Norbere betetze maila ikusteko, galdetegia bete daiteke. Modu ho-

netan, hileroko gaiari lotuta tolosarren konpromiso maila ezagutzeko aukera dute herritar guz-

Norbere betetze maila eta tolosarren konpromiso maila ezagutu daiteke galdetegia betez

tiek, «komunitate eta herri modura ditugun indargune eta ahulguneak ezagutzeko eta zein esparru indartu jakiteko».

Bestalde, Tolosako Haurren Hiria ekimenak emozioak eta sentimenduak ulertzearen ingu-

ruko lanketa egiteko helburua izan du hurrekin ikasturte honetan. Horretarako, Keinu Txikien Aliantza ere izan dute hizpide, eta hilabetero keinu txikiak landu dituzte, eta berriak ere proposatu dituzte, hala nola, familiarekin egotea, kirola egitea, irakurtzea, eguneko momentuak gehiago gozatzea, elkarren artean ondo eramatea...

Aliantza, urte hasieran, helduen ekarpenetatik abiatu zenez, haurren ikuspegia txertatu dute orain, eta haintzat hartuko dituzte haurrek proposatutako keinu txikiak.

Eneritz Maiz Etxarri Anoeta

Anoetako Mendigibel baserrian bizi dira Maria Teresa Jauregi eta Jexux Artola. Baserrian jaioak dira biak ala biak. Jauregi Aian eta Artola Anoetan bertan. Ez-konduz geroztik baserritik atera dute eguneroko ogia, eta egun, horrela jarraitzen dute. Aire libreko baratzeaz gain, lau berotegi dituzte. Sari ugari jasoak dituzte, eta bezeroekiko hartu-eman gustukoa dute. Momentu «on» asko paseak dira.

Lan gogortzat dute ogibidea. Hala ere, Artolak argi du gazteak animatu egingo lituzkeela baratzean lan egitera, baina txikitatik ohitu beharra daudela ikusten du. Jauregik gaineratu du: «hemen zortzi ordu pasata ez daukazu ezer».

Nola gogoratzen duzue zuen umetako baserria?

Maria Teresa Jauregi. Askotan esaten dut nik txikitik oso ondo pasatzen nuela. Gazteena nintzen, eta bi baserri ginen inguruan eta ondo moldatzen ginen. Bi baserrietan ibiltzen nintzen, eta errege magoak ere bietan izaten nituen. Baratzetik ez genuen, ganadua zegoen. Txikitatik tokatu zitzaidan lan egitea, garoa bildu-eta, orain egiten ez diren lan asko izaten ziren.

Jexux Artola. Ni Anoetako Mendigibel baserrian jaioa naiz eta hemen jarraitzen dut. Orduan ganadua izaten zen. Garia egiten zen, eta ogia etxean egiten zen. Ama zenak urte osoan ogia egiten zuen. Talo gutxi jandakoak gara gu. Gari asko izaten genuen. Niri ere txikitatik egokitu zitzaidan lan egitea. Arreba zaharrago bat banuen baina zortzi urterekin-edo hil zen, eta beraz, ni nintzen zaharrena eta mutila gainera; beste arreba errazago libratzen zen. Orduan, ganadua rekin egiten zen lana.

Ezkondu eta baserritik bizitzearabaki zenuten.

Jauregi. Bai. Orduan esne behiak genituen, eta esnea kalean banatzen genuen. Anoetan bakarrik ibiltzen ginen, baina berehala hasi ginen baratzearekin ere. Herrian denda bat bazen eta bertara barazkiak eramaten genituen.

Noiz erabakitzen duzue baratzetik bizitzea?

Artola. Ziur esateko ez dakit, baina 42 bat urte edo izango dira berotegiak jarri genituela. Lehenago kanpo librean aritzen ginen, eta horrekin pezetak ikusten genituen. Baserrian zuk txekorra hazteko jartzen baduzu urtebete edo hamahiru hilabete pasa behar dituzu dirua ikuste-

«Tolosako azokara orain jende gazte asko etortzen da»

MARIA TERESA JAUREGI ETA JEXUX ARTOLA NEKAZARIAK

Bizitza osoa daramate Maria Teresa Jauregi eta Jexux Artolak lurrari lotuta, eta beraien ogibidea baratzea dute; kanpo librekoaz gain, lau berotegi ere badituzte



ENERITZ MAIZ

rako. Txerriak ere eduki izan ditugu. Baratzetik, berriz, dirua segituan ikusten duzu eta horrek poz handiagoa ematen du.

Hasieratik hasi zineten azokazoka?

Jauregi. Hasieran herriko dendara eramaten genituen, eta gerora hasi ginen azoketan. Aurrena Tolosara joaten hasi ginen.

Zenbat urte dira?

Artola. Ordiziara joateari uztean omenaldia egin zioten berari, eta 42 urte egin zituen postua jartzen, eta lehenago hasi ginen.

Jauregi. Urte asko dira. Aurrena Tolosara eta gero Andoainera joaten hasi ginen, eta gerora hasi

ginen Ordiziara joaten. Andoainera bi egunetan joaten ginen. Astean lau azoka izaten genituen.

Lan handia egin behar.

Jauregi. Bai, baina konpontzen ginen. Umeak ere artean etxean genituen eta laguntzen zuten.

Artola. Lan handia, baina adina ona. Herrigunean bizi gara, eta ez gure umeak direlako, baina oso ondo portatu zaizkigu.

Urte asko atzera egin duzue, baina zein barazki ziren lehen saltzen zenituztenak.

Jauregi. Letxuga batik bat. Udan letxuga eta lekak. Tomatea ere bai, baina beranduago izaten

genuen, hasieran berotegirik ez genuen-eta. Udazken aldera azalorea ere bai, baina aza gehiena. Zerbak ere bai.

Urte guzti hauetan asko aldatu da baratzea?

Jauregi. Aldatu da zerbait, baina ez hainbeste. Badaude aldatu direnak, espinakak, romaneskoa, brokolioa,... negukoak dira.

Artola. Orain aukera askoz ere gehiago dago.

Piperrik bazen?

Jauregi. Ez. Geroztikakoa da piperra. Piper txorizeroa eta piper morroa baziren, baina Ibarako piperra gerozkoka da.

Hiru azoka ezagutu dituzue.**Urte guzti horietan azoka bera ere asko aldatu al da?**

Jauregi. Bai, asko aldatu da. Hala ere, orain jende gazte asko etortzen da. Orain baino jende gazte gutxiago etortzen dela egon dira azokak. Bereziki Tolosako azokara etortzen da jende gazte asko. Larunbata jai eguna da, eta Ordiziara-eta gutxiago joaten zen; amonak gehiago. Lanera joan behar, eta Andoainen ere berdin gertatzen zen.

Poztekoa izango da gazteak ikustea, ezta?

Jauregi. Larunbata izanez gero jende gazte asko ateratzen da merkatura. Produktu freskoa nahi duen jende asko dago orain.

Artola. Tolosan beti ondo saldu izan dugu.

Bezeroek begiratzen dute nolako produktuak dauden?

Artola. Bai. Guztiari begiratzen diote orain.

Jauregi. Badira begiratzen ez diotenak, baina prezioari ere begiratzen diote.

Postua jarri eta tratuan ari-tuak zarete?

Jauregi. Noski. Eta orain ere eguerdiko hamabietan dabilena, merke salduko ote zaion begira egoten da. Bestela badaki barazkiak etxera eraman behar ditugula, eta horrelakoak oraindik badira; gutxiago dira, baina badira oraindik. Jende gaztea ez, baina amonak-eta bai.

Prezioaren kexarik izaten da.

Artola. Tolosa guretzat oso toki ona izan da; berezia, eta beti ondo saldu izan dugu.

Jauregi. Produktu berri bat hasten duzunean, esaterako, piper-rak, hori merke ez dago eramaterik. Lehendabizikoak izaten dira, eta dirua horrekin hartu behar izaten dugu. Lekekin ere berdin gertatzen da.

Bezeroak ere jakin behar du hori ordaindu egin behar dela.

Jauregi. Bai, bezeroak ere badaki. Lehena bada badaki garestiagoa dela.

Artola. Baina nik uste dut askori ez zaiola dirua axola. Ilarra ere preziatua izaten da.

Jauregi. Aurrenekoa baduzu ilarra berezia da, eta ez diote prezioari begiratzen.

Artola. Piperra 12 euroan saldu genuen, eta badakit ez dela merkea, eta kosta egiten dela, baina gero erdi prezioan saldu behar dugu. Bost-sei euroan jarri behar duzu.

Azokara joan aurretik, ordea, baratzean izugarritzko lana egin beharra daukazue.

Jauregi. Bai, beharko. Ordu askoko lana da. Landatu eta barazki guztiei kasu egin behar diezu. **Eguneroko lana al da?**

Jauregi. Bai, egunero begiratu behar diezu. Berotegian behintzat bai. Aire librean gutxiago. Ura falta duten edo ez. Horiek egarriak badaude segituan jartzzen dira zimelduta.

Artola. Bestetik euria bada, kanpoan ezin duzu aritu, baina berotegian bai.

Baratze handia duzue, eta gainera berotegiak ere badituzue.

Artola. Bai. Lau berotegi ditugu. Ia bi mila metro koadro daude taputa.

Jauregi. Negu guztian berotegiko letxuga izaten dugu, baina jendea kanpoko letxugaren gozoz egoten da.

Larunbatero jartzen duzue Tolosan postua. Noiz hasten zarete barazkiak prestatzen?

«Ordu askoko lana da. Landatu eta barazki guztiei kasu egin behar diezu»

MARIA TERESA JAUREGI
NEKAZARIA

«Baratzetik dirua segituan ikusten duzu eta horrek poz handiago ematen du»

JEXUX ARTOLA
NEKAZARIA

Jauregi. Ezin da utzi azken egunerako eta ezin dira asteen behin bildu. Piperrak, adibidez, txikiak bildu behar dira, bestela handiegia egiten dira edota lekekin berdin. Astean bi egunetan gutxienez bildu egin behar dira.

Artola. Utziz gero, lekari alea egiten zaio. Giro ona bada segituan hazten zaie, eta bezeroa kezatu egiten da.

Urte sasoiaren arabera lan karga ezberdina duzue?

Artola. Lan gehien udaberrian izaten da. Landare asko landatu egin behar dituzu, eta kasu egin behar izaten zaie.

Seme-alaben laguntza eskertuko duzue, ezta?

Artola. Bai. Ez genuke eduki be-

har, baina ganadua pixka bat ere badugu. Zelaiak ditugu, eta aurrekoan alaba etorri zen laguntzera, eta gazteak beti ere lan gehiago egiten du.

Jauregi. Zelaiak ere garbi mantendu behar, eta gazteak lana errazago egiten du. Eta gogoarekin baldin bada gure aldean lan bikoitza egiten dute.

Nolakoa da zuen egunerokoa?

Jauregi. Ganadua orain kanpoan dago, baina neguan, aurreneko ganaduari jaten eman. Zortziak aldera jaikitzen naiz. Gosatu eta baratzerara. Eguraldiaren arabera, kanpoan edo berotegian. Belarrak atera, urik baduten begiratu, behar dutenei ezta-kak jarri...

Artola. Orain ez naiz goiz jaikitzen. Baina beti dago zer egin. Lekak jarritz gero, haiek lotu egin behar dituzu, tomateek lan handiagoa dute,...

Goiz eta arratsalde aritzen zarete?

Artola. Normalean bai.

Jauregi. Barazkiak bukatzean lurrak garbitu ere egin behar dituzu, eta horrek ere lan handia du. Lurrari buelta eman eta berriaz prest jarri behar izaten da.

Adinean aurrera, baina baserrian lanean jarraitzen duzue. Zer ematen dizue baserriak?

Jauregi. Honetara ohituta gaude. Gustatu egiten zait baratzea, eta nik ikaragarri ondo pasatzen dut. Entretenu egiten naiz.

Artola. Hementxe jaio nintzen ni. Bera Zarautzen neskame lanetan ibilia da, baina ni ez naiz hemendik atera. Aukera izan dut, baina nire aita zenari fabrikara joateko konturik ez aipatu gero! Baserri handia genuen guk. Lagunek ere esaten zidaten paper fabrikari edo lanean hasteko, baina behin geratu nintzen eta gaur arte.

Gustura?

Artola. Lana egin eta pezetak etortzen ziren, baina lanean ondo arituta! Bion soldata ateratzeko lana egin behar da.

Auzolangin(l)tza proiektua aurkeztuko dute Berastegin

Tolosaldean abiaraziko dute auzolaneko «esperientzia berritua» ardatz duen ekimena; Tolomendik sustatu du Mondragon Unibertsitatearekin eta Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean

Erredakzioa Berastegi

Auzolanean jartzen du azpimarra Tolomendik sustatutako *Auzolangin(l)tza: XXI. mendeko Gipuzkoaren eraikuntzan auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza? Tolosaldean saiakera proiektuak.*

Tolosaldeko Landa Garapen Elkartearen arabera, helburua da Tolosaldean auzolaneko «esperientzia berritua» esperimentatzea. «Horretarako, auzolaneko kulturaren eta esperientzien gaineko lanketa egin nahi da lehenik Tolosaldeko eragile ezberdinekin, ondoren proiektu berritzaileak diseinatu eta esperientzia pilotuak martxan jartzeko», gaineratu du.

AURKEZPENA

Egitasmoa aurkeztu eta abiarazteko Berastegi aukeratu dute, eta saioa egingo dute uztailaren 23an.

«Elkarrekin proiektua ezagutu, auzolaneko kulturaz gehiago sakondu eta aurrera begirakoak eztabaidatzeko» asmoz egingo dute Berastegiko topaketa.

Uztailaren 23an, ostirala, 09:00etatik 13:00etara izango da, eta Tolomendik eskualdeko udal herrigintzako ordezkari eta eragile guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera. Joateko aurrez eman behar da izena Tolo-



Berastegiko ikuspegi orokorra, artxiboko irudi batean. M.U.

mendirekin harremanetan jarrita. Tolomendik abiarazi du Auzolangin(l)tza proiektua eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren

berrikuntza sozialerako Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoalab 2021 deialdirako diru laguntza jaso du.

EGITARAUA

Ongietorria eta aurkezpena.

09:00etan Berastegiko alkatearen agurra eta 09:10ean lan-saioaren eta egitasmoaren aurkezpena Tolomendiren eskutik.

Auzolanaren kulturaz. 09:30ean proiektuaren aurrekariak eta kokapena (Eusko Ikaskuntzako Arrate Arin eta Deustuko Unibertsitateko Ion Muñoa). 10:00etan *Auzolanaren kultura: elkarlana eta bide-garbi-*

tzea baino gehiago hitzaldia, Mondragon Unibertsitateko Andoni Eizagirreren eskutik.

Etorkizuneko auzolana elkarrekin landuz. Talde dinamika

11:00etan eta partekatzea eta eztabaida 11:45ean.

Ondorioak eta itxiera. 13:00etan bukatuko da saioa.

*10:30etik 11:00etara egingo dute atsedenaldia.



1 BBK Karpin Abentura FAUNAREN BABES ZENTRUA

Bi lagunentzako bina sarrera



Karrantza
infokarpin@gmail.com
626 622 245

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

harpidedun izateak badu saria zozketa

2 LEARTIBAI ONDAREAREN KALITATEZKO KONTSERBA ETA PRODUKTU SORTA

Laneko Koop. Elkartea
Okamikako industrialdea, 2 5 A. 48289
Gizaburuaga.94 684 20 26
bbkazoka.eus/eus/kolekzioak/laneko

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 TXITXIRIO euskaraz eginak

Kamixeta bana bi lagunentzat



www.txitxirio.eus
656 788 351

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako asteazken, ostegun eta ostiral goizean. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.



Emakumeen oroimena berreskuratzeko ibilaldiak zein geldialdi egingo duen erabakiko dute parte hartze prozesuan, argazkian Irurako Ibaigain pasealekua. J.M.



«Ezkutuan eraman den lan hori azalera ateratzea da helburua»

NOELIA LATABURU ORTIZ
BERDINTASUN ZINEGOTZIA

J.M. Irura

Herriko emakumeen memoria historikoa ezagutarazteko partaidetza prozesuan parte hartzeko deia luzatu die herritarrei Noelia Lataburu zinegotziak.

Nondik dator ideia?

Irura Moretuz taldeari sortu zitzaion ideia. Irurako emakumeen memoria historikoa jasoz ibilbide bat egitea proposatu ziguten herrian erreferente izan diren emakumeekin eta sektoreekin. Ezkutuan eraman den lan hori azalera ateratzea da helburua. Horretarako parte hartze prozesua jarriko dugu martxan.

Noizko egongo da prest?

Gure asmoa datorren urteko martxoaren 8 ingururako ibilbidea prest edukitzea da. Lehen bilera asteartean izango dugu.

Beste ekimenik baduzueburuan?

Beka bat ere esleitu dugu herriko emakumeen memoria bildu eta zabaltzeko. Uste dut ezinbesteko lana dela, ez baita arlo honetan orain arte ezer egin. Urratsak ematen ari gara pixkana.

Emakumeen memoria historikoa berreskuratuko dute

Irurako Udalak ibilbide bat osatuko du herrian zehar eta asteartean egingo du egitasmoa zehazteko egingo den parte hartze prozesua aurkezteko lehen bilera

Jon Miranda Irura

Irurako Udalak herriko emakumeen memoria historikoa bilduko duen ibilbidea osatuko du parte hartze prozesu baten bitartez. Proiektua aurkezteko lehen bilera uztailaren 20an izango da, 19.00etan, eskola zaharreko gela biribilean.

Farapi kooperatibak gidatuko du parte hartze prozesua eta herritar guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuta. Udal ordezkariak aitortu dute Irura Mo-

retuz talde feministak ezinbesteko papera izango duela prozesuan, bere partaideak izango baitira, parte hartuko duten gainerako herritarrekin batera, «ibilbideari forma eta edukia emateaz arduratuko direnak».

Proiektu honek urteetan Irurako emakumeek egindako lana azaleratzeko balioko du, besteak beste. «Gehienetan, ezkutuan eta dokumentatu gabe geratzen den belaunaldi desberdinetako emakumeen jarduna herrira zabalduko da Iruran zehar joango

den ibilbideari esker», esan dute udal ordezkariak. Herriari egindako ekarpenaren aitortza eta emakumeon ahalduntze bidean ezinbesteko proiektua izango dela aurreratu dute.

Parte hartze prozesu honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izango du. Proiektu osoaren %80 finantzatuko du aldundiak. Diru horrekin, Farapi kooperatibaren lana eta etorkizuneko ibilbide horretan jarriko diren euskarriak ordainduko dira. Ibilbidean zehar ezagutzera

eman nahi den informazioa jasotzeko panelak jartzea da udalaren asmoa.

Irurako Udalak herritar eta eragile guztiei dei egiten die prozesuan parte hartzera. Horretarako, gonbidapen eskaera egin beharko dute herritarrek www.irura.eus webguneko agenda atalean. Aurreratu dutenez, uztailaren 20ko bilerarako zaintza zerbitzua egongo da eta honen erabilera egin nahi izanez gero Irurako kultura bulegoan eman beharko da izena.

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Lehen aldiz egingo dute Sandra baserrira kronoigoera bizikletaz

Irrintzi Txirrindularitza Elkarteak antolatuta, proba berria ospatuko da etzi, 16:00etan hasita; ia 4 kilometroko luzera eta batez beste %9,6ko malda duen aldapa igo beharko dute

J. Artutxa Amasa-Villabona

Larunbaterako, txirrindulari lasterketa berri bat antolatu du Amasa-Villabonako Irrintzi Txirrindularitza Elkarteak; kronoigoera izango da, Sandra baserrira. 16 urtetik gorako txirrindulariek hartu ahalko dute parte eta, gizonezkoetan nahiz emakumezkoetan, hiru kategoriatan banatuko dituzte partaideak: 18 urtez azpikoak, 23 urtez azpikoak eta elite mailakoak.

Irrintzi elkarteko kide den Borja Aranzabek aitortu du beti izan dutela Sandra baserrian zerbait egiteko gogo. «Begira egon ginen, ea noizbait zerbait egin ote zen bertan. Duela 20 urte baino gehiago, afizionatuen lasterketa baten helmuga izan zen, eta gerora, kronoigoera bat ere antolatu zen aldapa horretan». Larunbateko lasterketarekin hori berreskuratu nahi dute. «Aurtengoa lehen edizioa izango bada ere, erantzun ona izanez gero, hurrengo urteetan mantentzeko asmoa dugu».

Larunbateko probari dagokionez, Errebote plazatik irtengo dira txirrindulariak. 16:00etan irtengo da lehena, eta gainerako-



Sandra baserrira (etxe zuria) kronoigoerako azken metroak. ATARIA

ak banan bana abiatuko dira, bi minutuz behin. Ia 4 kilometroko igoera da, nahiko zorrotza, 371 metroko desnibelarekin, eta batez besteko %9,6ko maldarekin. Hirugarren kilometrotik aurrera, gorantzako joera du, eta txirrindulariek %17ko malda duen aldapa igo beharko dute, helmugatik 50 metrora. «Lehen kilometroa (%7,2) da samurrena; azkena (%11,2), berriz, gogorrera; tartekoak (%10,1) ere gogorak dira. Hortaz, amaierarako indarra gordetzea aholkatuko nieke».

Oraingoz, dozena bat lagunek eman dute izena, baina epea zabalik dago, eta 615 711 056 telefono zenbakira deituz edo *Herrikrosa.eus* webgunean egin daiteke inskripzioa. «20 partaidetara iritsi nahi dugu. Horien artean, denetik egongo da: irabaztera datozenak, bizikletan sarri ibiltzen direnak baina irabazteko hautagaiak ez direnak, parte hartzea gustuko dutenak eta erronka bati aurre egiteko aitzakiarekin etorriko direnak», azaldu du Aranzabek.

Garaipenetik oso gertu geratu da Unai Iribar

Txirrindulari ibartarra hirugarren izan da esprintean amaitu den Helduz Torneoko lehen proban; larunbatean Euskaldun Txapelketako proban ariko da, Gatzagan

J. Artutxa Ibarra

Pasa den igandean, Helduz Torneoko lehen lasterketa izan zen Antzuolan. Laboral Kutxa taldeko Unai Iribar txirrindulari ibartarra hirugarren sailkatu zen, Unai Hierroren eta Xabier Isasa taldekidearen atzetik. Proba gogorra zen, hiru mendaterekin, eta azkenengoan, San Asension, erabaki zen. «Lehen taldean heldu nintzen, baina zazpi segundora genuen hurrengo, eta jaitserian bat egin genuen. 15 bat lagun geunden, eta helmugaraino erasoak joz aritu ginen», esan du.

Helmugarako 2 kilometro geratzen zirela, Hierrok jo zuen eraso, eta gainerakoen artean geldialdi bat izan zen; horrela, errenta txikia lortu zuen. «Bera harrapatzeko lan handia egin genuen hainbat taldek. Azken metroetan ere saiakera txiki bat egin genuen, esprintarekin, baina ez zen posible izan». Hala ere, denbora berean helmugaratu ziren lehen bederatzi txirrindulariak.

Momentuan bertan, pena sentitu arren, egindako lanarekin pozik geratu zen Iribar: «Azken bi hilabeteetan lan bikaina egin ari gara, dinamika ederra da-

ramagu, baina noski, ia ezinezkoa da beti irabaztea».

Igandean, baina, garaipena lortzeko aukera berri bat izango du ibartarrak, Gatzagan jokatu-ko baita Euskaldun Torneoaren laugarren proba. «Txirrindulari indartsu askok huts egingo dute, beste lasterketa batzuetan parte hartzen ariko direlako. Ondorioz, gu izango gara talde erreferentea, hau da, ardura handiena izango duena. Lehen erasoei arretaz erreparatu beharko diegu, baina amaiera gogorra duen proba denez, irabazteko aukera handia izango dugula iruditzen zait», aitortu du Iribarrek.

Txapelketa honen sailkapen nagusian, hirugarren postuan dago, lehen sailkatuarengandik lau puntutara. «Sailkapen nagusiari baino gehiago erreparatzen diot lasterketa bakoitzari», adierazi du. Denboraldian zehar lan oso ona egiten ari da, eta bizikleta gainean ere sentsazio onak izaten ari dela aitortu du. «23 urtez azpiko Giroan eta Espainiako Txapelketan aritu ondoren, atsedean hartu eta erritmoa jaitsi dut. Udan ere egutegi bete izango dugu; hortaz, lanean jarraituko dugu», esan du ibartarrak.

Mateos hirugarren, X. UltraEbre Swim proban

Erredakzioa Ibarra

Pasa den larunbatean, 31 kilometroko UltraEbre Swim Marathon ibai zeharkaldiaren hamargarren edizioa izan zen Tarragonan (Katalunia). Tivenys herrian hasi eta Ampostan bukatzen zen proba, estatuko zeharkaldi gogoren artean bigarren postuan kokatzen dena. 41 igerilari izan ziren, Europako hainbat herrialdeetakoak, eta partaideen artean izan zen Ioseba Mateos ibartarra.

Eguraldiaren eta uraren egokieraren aurreikuspenak ez ziren

egokienak, eta bete egin ziren. «Korrontea alde izan nuen lehen zatian, baina azken 11 kilometroetan haizea aurka izan nuen, ia metro erdiko olatuekin. Asko sufritu nuen eta oso zaila izan zen helmugara iristea», azaldu du igerilariak.

Azkenean, baina, denboraldiko bigarren erronka bete zuen, eta 5 ordu, 42 minutu eta 11 segundoko marka eginez, hirugarren izan zen. Guille Matas izan zen onena, 5 ordu, 27 minutu eta 26 segundoko denborarekin, eta Xabier Gordoia bigarren, 5 ordu,

35 minutu eta 54 segundoko markarekin. «Lehen esperientzia izan da ibaian, ultra distantzian, eta oso pozik nago, espero gabeko emaitza lortu nuelako», adierazi du Mateosek.

Hilaren 24an eta 25ean izango ditu Mateosek hurrengo zeharkaldiak, biak itsasoan. Batetik, 5 kilometroko Zarautz-Mollarri-Zarautz lasterketa; bestetik, 3 kilometroko Zarautz-Ubiri-Zarautz proba. Koronabirusaren intzidentzia-tasa 300dik gorakoa izanez gero, bertan behera geratuko dira bi zeharkaldiak.



Ioseba Mateos ibartarra (eskubian), ibai zeharkaldia amaitu berrian. ATARIA



OSTEGUNA, 2021EKO UZTAILAK 15
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletze
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidana-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Osasun egoerak bultzatutako etenaldia eta gero, ekainean elkartu ziren jubilatutak 'Adinak ez du inporta' lelopean bidegorrian ibiltzeko; irailean egingo dute hurrengo ibilaldia

Adinak ez du inporta



Atzo elkartu ziren Zizurkilgo jubilatutak bidegorrian barrera ibilaldia egiteko. JON MIRANDA

Jon Miranda Zizurkil

Pandemiaren eraginez etenaldia egin ostean, ekainaren 25ean hasi ziren berriro adinekoak Zizurkildik Astea-suko bidegorrian zehar ibilbidea egiten. *Pausoka, adinak ez du inporta* lelopean elkartzen dira, eta atzokoan eguraldi txarragatik ibilbide motzagoa egitea erabaki zuten. Joxe Arregi plazatik abiatu ziren, eta, Bulandegi bidean barrena, Adunako zubiraino joan ziren. Handik Villabona

osoa zeharkatu zuten, eta Ugare auzotik itzuli ziren berriro Joxe Arregi plazara. 20 pertsona inguruk parte hartu zuten ekimenen, eta ibilbidea amaitutakoan Egarrri tabernan hamaiketako egiteko aukera izan zuten.

Udako etenaldiaren ondoren, irailtik aurrera jarraituko duela *Pausoka, adinak ez du inporta* ekimenak azaldu dute.

2018 urtean Zizurkilgo Udalak eta Zizurkilgo Elizpe erretiratuaren elkarteak elkarlanean sortu zuten ekimena. Adineko herritarrek bidegorritik paseatzera ani-

matu nahi dituzte «adin batetik aurrera ariketa fisikoa egiteak garrantzia berezia baitu». Bada, luzera desberdineko hiru ibilbide jartzen dituzte aukeran, ahalik eta herritar gehien animatzeko, eta leloak ere horretara egiten du gonbita. Osasunari begirako onurez gain, herritarren arteko harremanak sustatzeko ere bultzatu nahi du ekimenak.

Hilean behin egiten dute hitzordua eta abuztuan atsedean hartuko dutenez, irailean egingo dute hurrengo ibilaldia.

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Gozategi taldearen kontzertua, eskolako jolastokian, 19:30ean.
Amasa-Villabona. Gari, Montxo eta Joselontxoren *Petitxoupailazo* ikuskizuna Amalur plaza, 19:00etan.

Erakusketak

Hernialde. Herriko artisten lanak, udaletxe kultur aretoan.
Tolosa. Kultur lantegietan ikasleek egindako lanak, Aranburu jauregian.
Tolosa. Jabetze Eskolako xilografia ikastaroa ikasleen lanak, Emakumeen Etxeko erakusleihoetan.
Tolosa. Edurne Sudupe Zabaloren *Mandala* erakusketa, 3 tabernan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Baserritik. Lehen sektorea.
10:00. Amalurra. Ingurumena.
11:00. Postalak. Bidaien tartea.
12:00. Letren errepublika. Literatura.
15:00. Ezkutuko aldea. Eskualdeko pertsonaiekin elkarriketa.
20:00. Musikasi. Musika klasikoa.
22:00. Mailu ta akuilu. Musika.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
09:30. Gaurkoan Tolosaldeko
15:00. Elkarriketap (Elisa Sainz de Murieta)
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Pintxo-Pote (Aintzane Arto-la)

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Ben-goetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Hobetzeko bidea hartuko du eguraldiak. Goizean zeruian hodei asko agertuko dira, eta oraindik euri langar modura zaparrada txikiren bat edo beste egitea espero da. Arratsaldeko lehen ordutik aurrera, ordea, atertu egingo du eta ostarte politik irekiko dira. Haizeak iparraldetik joko du eta tenperaturak zertxobait igoko dira, 22-23 graduan joko duen larrik goia.

Bihar. Giro eguzkitsua bueltan izango dugu. Goizean oraindik hodei baxu batzuk agertuko dira, baina orduetako aurrera egin ahala eguzkiak xurgatu egingo ditu eta arratsalde eguzkitsua gertatzea espero da. Haizeak ipar/iparekialdetik joko du eta tenperatura koska bat igoko da, 23-25 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM





ORIA BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12- 20400 Tolosa
943 69 75 79
www.funerariaoria.com